

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Sentipenei jarraitu, eramaten zaituzten lekuraino



Uneak.
R.
Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 34'23".
10 euro.

R ez da talde berria, nahiz eta ez den astebururo kontzertuak ematen ibiltzen. Pentsa, 2000 urtean Bilbo Hiria Pop-rock lehiaketako Euskal Herriko talde onenaren saria jaso zuten. Hala ere, beraien bidea jarraitu dute denbora eta erritmo propioarekin, lan honetan bezala. Andoangoak dira eta orain dela urte gutxi hirukote bilakatu ziren. Post-hardcore ildoan irudimen handiz mugitzen dira, erritmo pausatuarekin, baina kolpeka eta instrumentuekin etengabe

elkarrekin jolastuz. Giro oso bereziak lortu dituzte, tartean psikodelia zein erritmo tribalak aurki daitezke; eta gitarretan stonerretik hurbil dauden soinua ere antzeman daitezke. Baina, jakina, tarteka badute intentsitate handiagoa eta, zergatik ez, zoramen puntua. Barrenak eta musikak eskatzen dietena egiten dute, eta dotoreziarekin gainera.

www.myspace.com/rtaldea

R

«Hirukote izateak gehiago bultzatu gaitu gauza berriak bilatu eta probatzera»

Zuen ibilbidea ziklotakoa izan da. "Une" berezien zain egoten zarete lan egiteko?

Egia esan gure jarduna etengabea izan da beti. Ez agian diskoak kaleratu eta zuzenekoak eskaintzearen maiztasunari dagokionez, baina bai elkartu eta musikaz elkarrekin gozatzeko garaian. Halere, egia da zuk diozuna, iristen dela "une" bat non gure lana disko batean laburbiltzen dugun eta jendaurrean eskaintzera animatzen garen.

Dezente esperimendu duzue giroekin, sonoritateekin, erritmo aldaketekin eta instrumentuen arteko joko ia jazzeroekin. Ez da hala?

Disko honetan nabarmenagoa izan da inprobisazioari eta askatasunari eskaintako lekua. Orain hirukote izateak ere lagundu gaitu horretan, gauza berriak bilatu eta probatzera bultzatu gaituelako egoerak berak.

Post-hardcorearen eremuan eroso mugitzen zarete, ezta? Badirudi gaur egun inork ez duela post-hardcorea errebindikatzeko.

Beti sartu izan gaituzte esparru horretan. Oso gustuko ditugu talde horiek, baina argi dugu bakoitzak bere bidea egiten duela. Ez da aldarrikapen bat, ezta korrontearen aurka joan nahia ere.

Bestalde, gitarretan baduzue zerbait Leitzarango desertukoa...

Hego haize hotzak astintzen gaitu, beti edan dugu desertuetako uretatik. Iturri oparoak daude edonon, beraietatik edatea besterik ez dago norberaren barrua busti eta asezteko.

"Taupadak azkartu", "Emaiozue korda erlojuari", "Beste egun baten beteko da", *Uneak...* Denbora obsesioa al da zuentzat?

Egoerak deskribatu nahi ditugu, kanta bakoitza une bat da. Denborekin obsesioa baino gehiago, sentimendu batzuk adierazteko modua da.

Minimalista eta oso dotorea diseinua eta argazkiak. Arratsko azken argitan lortutakoak dira?

Jakina. Eguzkiaren azken izpiek eskaintzen duten argitasunak misterio kutsua ematen die irudiei. Diskoak osotasunean duen konzeptuarekin bat datoz, une desberdinekin. ■

